

2018ko urria



2018ko irailaren 10eko ebazpenaren bitartez Bilbao Bizkaia helmuga turistikoaren garapena bultzatzeko laguntzak argitaratu dira.

Lea-Artibai eskualdeari **52.619** euroko laguntza ekonomikoa dagokio, eskualdean proiektu ezberdinak gauzatzeko baliatuko dena, betiere eskualdeko enpresen elkarlana bultzatuz eta udaletxetako plangintzak errespetatuz. Turismo arlorako Bizkaiko Foru Aldundiak onartu dituen proiektuak hurrengoak dira:

- **Helmugako turismoaren kudeaketa tekinkorako laguntza**, Lea-Artibai Bizkaiko Foru Aldundian ordezkaturata egoteko.
- **Wifi Baliza** Lea-Artibai lurraldeko baliabide turistikoak balioan jartzeko.
- **Mogeldarren pausuen atzetik ibilbidea** lurraldeko baliabide turistikoak balioan jartzeko.
- **Lea ibilbideko diptikoa** eskaintza sustatzeko.
- **Lea-Artibai Fest** eskualdean turismo ekitaldi berri bat sortzeko.

- **Lea Artibai Coworking** turismo sektorearen profesionalizazioa bultzatzeko.
- **Ihesaldi Sentsoriala** ate irekien jardunaldietan.
- **Sare sozialen kudeaketaren lehiakortasuna hobetzea.**
- **Bizkaiko kostaldeko berrikuntza proiektua.**

Ekintza hauek 2018 urtean zehar burutu behar dira, eta gure eskualdeko turismoaren garapenerako lagungarriak izango dira.